



ATERPETXEKO ARAUDIA

- Gure etxea Arabako Foru Aldundiarena da eta Lola eta Iñigo dira bertako arduradunak. Egoitzaren zer ikusia duten gaiak, logelak, janaria, ordainketak... beraiekin adostu behar dira.
- Erabilera desegokiaren ondorioz, etxeko zerbait hautsiz gero edo bestelako arazoren bat izanez gero, arduradun horietakoren batekin hitz egin beharko duzue, edota gutariko batekin komentatu.
- Klaustro barruan ezin da pilotarekin jolastu, ezta barruko belarra zapaldu ere.
- Garbitzaileak egunero pasatzen dira garbiketa orokorra egitera, ikasleak gosaltzera joan eta gero. Ordurako oheak eginda eta arropak eta oinetakoak txukun jasota egon beharko dute.
- Garbiketarako edo jantzi-aldaketarako seinalatutako orduetan bakarrik sartu ahal izango da logeletara, egunaren beste orduetan hutsik egon beharko dutelarik. Inola ere ezin da bertan egon langileek garbiketan diharduten bitartean.
- Etxean aurkituko duzuen material didaktikoa erabil dezakezue, baina ondo zaindu behar duzue.
- Gauetz aterpetxe honetan jende gehiago dago, beraz, ez molestatu.
- Ostiralean goizeko hamarretarako maletak prest eta oheak jasota egon behar dira. Izarak bildu poltsa batean eta pasilloan utzi.



IRAKASLEEK JAKIN BEHARREKOAK

- Taldean behar berezirik duen ikaslerik izanez gero, jar zaitetze mesedez alde zurretik gurekin harremanetan.
- Ikasleen gaixotasun edo istripuen aurrean egin behar denari buruzko informazioa, Barnetegira etortzean emango zaizue.
- Mendiko botak sarreran horretarako egokitutako lekuan utzi.
- Hortz-eskuila, pasta eta berokiak Amartu gelan utzi, baita eskularruak, euritakoa, kantinplora, eta argazki kamara ere motxila txikiaren barruan.
- Ikasleek ezin dute egonaldian zehar etxera telefonoz deitu (salbuespenak salbuespen).
- Barnetegian bada kiroletako zenbait material: pilotak, baloiak... Erabilitakoa jasota utzi.
- Haurrek herri ingurua errespetatu egin behar dute.
- Aterpetxean beste talderen bat baldin badago jolaslekua konpartitu egin beharko dute.
- Jangela jaso eta jartzeko ardurak ikasleena da. Egun bakoitzean talde batek egingo du.
- Haurrak, jolas-garai librea dutenean, ez dira jolaslekutik irtengo.
- Botikina irakasle logelan dago. Zerbait falta bada, edo bukatu bada esan monitoreoi.
- Ekintzetan monitore eta ikasleekin batera aritzea aberasgarria izango zaizue eta gustura hartuko zaituztegu, gainera taldearengan eragin ona izaten du.
- Gurekin ez zaudeten uneetan non egongo zareten abisatu (zerbait gertatuz gero zuekin harremanetan jartzeko).
- Ostiralean giltzak eta karpeta uzteaz gogoratu.



BARNETEGIKO ORDUTEGIAK

IKASLEEN ordutegia

8:30ean: Jaiki, garbitasun pertsonala eta logelak txukundu

9:00etan: Gosaria.

9:30ean: Programazio-lana

13:30ean: Bazkaria. Denbora librea.

15:00etan: Programazio lana.

17:00etan: Jolas-garaia, askaria.

17:30ean: Programazio-lana.

18:30ean: Denbora librea.*

20:30ean: Afaria

21:30ean: Gaueko ekintzak.*

24:00etan: Isiltasuna.

IKASTETXEETAKO IRAKASLEEN ordutegia

9etatik 9:30etara Gosaria

13:30etik 15:00etara: Taldearen ardura.

18:30etik aurrera: Taldearen ardura.

IRAKASLE-MONITOREEN ordutegia

Irakasle-monitoreak barnetegian 9:00etatik 18:30era egongo gara.

Euskal Giroitze Barnetegiak